

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

18/2017 Foru Araua, irailaren 20koa, Arabako zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilera egokitzeke

Arabako Batzar Nagusiek, 2017ko irailaren 20an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

18/2017 Foru Araua, irailaren 20koa, Arabako zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilera egokitzeke

ZIOEN AZALPENA

I

Eusko Legebiltzarraren 5/2015 Legeak, ekainaren 25ekoak, euskal zuzenbide zibila arautzen du; haren edukirik garrantzitsuena oinordetza zuzenbideari dagokio. Arlo horretan aldarazpen garrantzitsuak jaso dira lehenago indarrean izandako legeriarekin alderatuz gero.

Bestalde, aintzat hartu beharra dago foru erakundeei dagokiela Arabako Lurralde Historikoan aplikatu beharreko zerga sistema arautzea, betiere Itun Ekonomikoak ezarritakoarekin bat etorritz.

Gauzak horrela, Foru Arau honen xedea da Arabako Lurralde Historikoko zerga sisteman ezartzea euskal zuzenbide zibila arautzen duen lege horrek jasotako erregulazioa eta berrikuntzak.

II

Foru Arau honek zazpi kapitulu ditu; horietan, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraz gain, honako Foru Arau hauek ere aldatzen dira: Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergarena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarena eta Toki Ogasunen gainekoarena, bai eta toki tributuak arautzen dituzten xedapenak ere. Gainera, doikuntza bat txertatu da Sozietateen gaineko Zergaren erregulazioan.

Erregulazio horren xedea da Arabako Lurralde Historikoko zerga sistemaren zergetan euskal zuzenbide zibilaren erregulazio berriak dituen partikularitasun edo berezitasunak jasotzea, bereziki komisario bidezko testamentuari, oinordetza itunari (oinordetza eskubideen ukoak barne) eta gozamen ahalduari dagokienez.

I. KAPITULUA

ARABAKO ZERGEI BURUZKO FORU ARAU OROKORRA

1. artikulua. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorra aldatzea

Arabako otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean, zergenean, honako aldaketa hauek egin dira:

Bat. 35. artikulua 6. idatz zatia 7. idatz zatia izango da aurrerantzean eta 6. idatz zatia sortu da honako eduki honekin:

“6. Orobat, zerga honen zergadunak ere izango dira testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua erabili gabe duten herentziak. Kasu horietan, zerga betebeharrak materialak eta formalak betetzea herentziaren administratzaileari edo gozamenaren ahalduari egokituko zaio, hurrenez hurren.”

Bi. 39. artikuluko 1. zenbakia aldatzen da; hona testu berria:

“1. Zergadunak zentzean, ordaintzeko dauden zerga betebeharrak jaraunsleei eskualdatuko zaizkie, betiere legeria zibilak oinordetza eskuratzeari buruz eta, bereziki, ekainaren 25eko 5/2015 Legeak, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoak, bere 21. artikulua jasotako erantzukizun mugaketari buruz ezartzen duenari kalterik egin gabe.

Zerga betebeharrak horiek legatudunei eskualdatuko zaizkie jaraunsleentzat ezarritako baldintza berberetan, herentzia legatuen bidez banatzen denean, baldin eta zati alikuotako legatuak ezartzen badira eta jaraunsle gisa titulu partikularrean ezartzen bada herentziaren hiru laurdenetik gorako balioa duen familia ondare edo ondare profesional batean.

Zehapenak ez dira inoiz eskualdatuko. Erantzulearen betebeharra ere ez da besterenduko, zendu aurretik erantzukizuna eratortzeko akordioa jakinarazia izan ezean.

Hiru. 43. artikuluko 1. idatz zatiari f) letra gehitu zaio. Hona testua:

“f) Testamentu ahalordearen edo gozamen ahalduaren bidez gauzatzen diren herentzietan, administratzailea eta gozamendun ahaldua, hurrenez hurren, erantzule subsidiarioa izango da testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua erabili gabe duen herentziaren zerga zorrei dagokienez”

Lau. 45. artikuluari 4. idatz zati berria gehitu zaio; hona:

“4. Testamendu ahalordea edo gozamen ahaldua erabili gabe duten herentzietan dagokienez, administratzaileak edo gozamendun ahalduak jardungo dute ordezkartzan, hurrenez hurren.

II. KAPITULUA

OINORDETZA ETA DOHAINTZEN GAINEKO ZERGA

2. artikulua. Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren Foru Araua aldatzea

Maiatzaren 16ko 11/2005 Foru Arauan, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzkoan, artikulua hauek aldatu dira:

Bat. 7. artikuluko 1. zenbakiko a) letra aldatu da eta honela geratu da:

“a) Ondasunak eta eskubideak jarauntsiz, legatuz edo beste edozein oinordetza tituluz eskuratzea.

Jaraunspenaz eta legatuaz gain, honakook dira, besteak beste, oinordetza tituluak zerga honen ondoreetarako:

a’) “Mortis causa” dohaintza.

b’) Oinordetzazko kontratuak edo itunak, eragina noiz duten gorabehera.

Hala, zerga ondoreetarako, ondasun eta eskubideen eskualdaketa duen oinordetza izendapena oinordetza titulutzat har dadin, ondasunen eta eskubideen titularrak horien oinordetza agintzeko borondatea egiaztatu beharko da.

Zerga honen araudiari baimena ematen zaio kasu horiek zehazteko, hau da, oinordetza agintzeko borondatea dagoen edo ez dagoen zehazteko.

Oinordetza agintzeko borondatea azaldu ezean, eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza ituna “inter vivos” eta doako negozio juridikotzat hartuko da.

Ondasunak edo eskubideak edo horietariko batzuk berristen diren eta b’) letrak aipatzen dituen kasuetan, zerga berriro ere sortuko da berrikusi beharreko ondasun eta eskubideei dagokienez, artikulua honen 1. idatz zatiko b) letrak aipatzen duen kontzeptuagatik eta betiere beste zerga bat aplikagarria eza bada.

c’) Komisarioak testamendu ahalordea erabiltzetik datozen egintzak, direnak direlakoak.

d') Herentzia baten oinordetza eskubide guztiei uko egiteko oinordetza itunak, herentziaren kausatzailea bizirik dagoenean, ekainaren 25eko 5/2015 Legeak, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzkoak, bere 100. artikuluko 2. zenbakiko lehen tartekian araututakoak.

Oinordetza eskubide guztiei uko egiteko oinordetza itunetan, uko egileak ondasun eta eskubideak eskuratzea doako eta "inter vivos" negozio juridikotzat hartuko da, izendatzailea hil ondoren ere, ezertan eragotzi gabe oinordekoei legokiekeen tributazioa.

Oinordetza eskubideen zati bati uko egiteko itun baten ondorioz uko egileak ondasun eta eskubideak eskuratzea bakarrik hartuko da oinordetza titulutzat honako kasuetan: eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza itunak aipatutakoetan, aurreko b') letrak zehaztutakoetan, alegia. Bestelakoetan "inter vivos" eta doako negozio juridikotzat hartuko da.

e') Hildako kide edo enplegatuen senideei enpresek eta erakundeek orokorrean emandako kopuruak jasotzeko eskubidea eratzkitzeko balio duten egintzak, haien modalitatea edo izena edozein izanik, baldin eta 1. idatz zati honen c) letran edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan berariaz xedatuta ez badago kopuru horiek jasotzeagatik zerga ordaindu beharra"

Bi. 7. artikuluko 1. idatz zatiko b) letra aldatu da eta honela geratu da:

"b) Ondasunak eta eskubideak dohaintzaz edo beste edozein doako eta "inter vivos" negozio juridikotzat eskuratzea.

Doako eta "inter vivos" negozio juridikotzat hartuko da uko egileak ondasun eta eskubideak eskuratzea hirugarren baten herentziako oinordetza eskubideak xedatzearen ondorioz, ekainaren 25eko 5/2015 Legeak, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzkoak, bere 100. artikuluko 2. zenbakiko lehen tartekian ezarritakoarekin bat."

Hiru. Artikulu bat gehitu da, 7 bis artikulua. Hona testua:

"7. bis artikulua. Kargarik gabeko kasuak

Ez dira zerga honen mende egongo foru komunikazioa desegitean alargundutako ezkontidearen alde edo izatezko bikotekidearen alde (bikotea Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat etorritik eratu bada) komunikaziopeko ondasunen erdia ordaintzeko egiten diren adjudikazioak"

Lau. 15. artikuluari 6. idatz zatia gehitzen zaio; hona testua:

"6. Eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza itunei dagokienez, artikulua honetan jasotako epeak zenbatzeko erreferentziatzat hartuko da eskualdaketa egiten den unea, betiere artikulua horretan jasotako ezarpenak aplikatze aldera"

Bost. V. kapitulari 3. bis sekzioa gehitu zaio; hona hemen:

3 BIS SEKZIOA

BIZI ASEGURUETARAKO ARAU BEREZIAK

20 bis artikulua: Ezkontide batek edo izatezko bikotekide batek kontratatutako aseguruak, ezkontzaren edo izatezko bikotearen sozietatearen kontura

1. Asegurua ezkontide batek irabazpidezko sozietatearen pentzuan kontratatu bada eta onuraduna bizirik dirauen ezkontidea bada, jasotako kopuruaren erdia sartuko da zerga oinarrian.

2. Aurreko idatz zatian ezarritakoa aplikagarria izango da, halaber, Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako izatezko bikoteen kasuan, baldin eta izatezko bikotea osatzen duten kideek ezarritako ondare araubide ekonomikoa aurreko idatz zatian azaldutako bada.

3. Era berean, artikulua honetako aurreko zenbakietan ezarritakoa aplikatuko da: ezkontzaren edo izatezko bikotearen araubide ekonomikoa ondasunen foru komunikazioa bada —ekainaren

25eko 5/2015 Legean, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoan, araututa dago— eta aseguruua hildako ezkontideak edo izatezko bikoteko kideak irabazitako ondasunen edo harengandik datozen ondasunen kargura kontratatu bada, betiere, azken kasu horretan, ondasunen foru komunikazioa finkatu egin bada, ekainaren 25eko 5/2015 Legeak, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoak, bere 132. Artikuluan ezarritakoarekin bat.”

Sei. 22. Artikuluko 2. Idatz zatia aldatu da eta honela geratu da:

“2. “Mortis causa” bidez edo bestelako oinordetza titulu bidez izandako eskurapenei dagokienez eta heriotzarako bizi aseguruaren bidez jasotako kopuruaren eskurapenei dagokienez, zerga kontzeptu bakoitzaren likidazio oinarria eskuratuko da zerga oinarriari beharrezko txikipena aplikatuz jarraian aipatzen diren ahaidetasun mailen arabera. Txikipena bakarria izango da bi zerga kontzeptuetarako eta bien artean banatuko da bidezkotzat jotzen den zenbatekoa aplikatuta:

0. taldea: ezkontideak, izatezko bikotekideak (Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikotea), lerro zuzeneko odol ahaide diren aurrekoek edo ondorengoek eta adoptatuek edo adoptatzaileek egindako eskuraketak; 400.000 euro.

I. taldea: bigarren eta hirugarren mailako alboko odol ahaideek eta ezkontza bidezko ondorengo eta aurreko ahaideek, are Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera izatezko bikotea eratzearen ondoriozkoek ere, egindako eskuraketak; 38.156 euro.

II. taldea: laugarren mailako alboko ahaideen, ezkontza bidezko bigarren eta hirugarren mailako alboko ahaideen eta urrunagoko ahaideen eta arrotzen eskuraketak; ez dago txikipenik.”

Zazpi. 22. Artikuluko 7. Idatz zatia aldatu da eta honela geratu da:

“7. Baldin eta hildakoaren ezkontideak edo izatezko bikoteko kideak (bikote horiek Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak ezarritakoaren arabera eraturik badaude), aurrekoek zein ondorengoek, adoptatuek zein adopzio hartzaileek edo hirugarren gradura arteko ahaideek “mortis causa” eskuratzen badute pertsona bakarreko enpresa bat, lanbide negozio bat edo Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauak bere 6. Artikuluaren 2. Idatz zatian araututako salbuespena aplikagarri zaion entitate partaidetzaren bat edo haien gaineko gozamen eskubideren bat, bada, orduan, halako eskuraketei zerga oinarriaren %95eko murrizketa aplikatuko zaie, betiere eskuraketak bere hartan irauten badu hurrengo 5 urteetan (salbu eta eskuratzailerak epe horretan hiltzen bada edo enpresa edo entitatea konkurtso prozedura baten ondorioz likidatzen bada).”

Kausatzailea bizi bitartean eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza itunen ondorioz izandako eskurapenetan, aurreko paragrafoak aipatutako bost urteko epea zenbatuko da eskualdaketa egiten den unetik aurrera.

Halaber, murrizketa hori aplikatzekoa izango zaio hala pertsona bakarreko enpresa baten, lanbide negozio baten edo idatz zati honen lehenengo paragrafoan aipatutako erakundee-tako partaidetzaren baten gaineko gozamen eskubideen eskuraketari, nola gozamen hori iraungitzearen ondorioz sortutako eskubide ekonomikoen eskuraketari, baldin eta heriotzaren ondorioz eskuratzailerak jabari osoa finkatzen badu edo gozamina iraungitakoan zor diren eskubideak kasuan kasuko enpresa, negozio edo erakundearen partaidetza gisa jasotzen baditu.”

Iraupenaren baldintza betetzen ez bada, egindako txikipenaren ondorioz ordaindu gabe geratu den zerga zatia eta dagozkion berandutze interesak ordaindu beharko dira.”

Zortzi. 23. Artikuluari 4. Eta 5. Idatz zatiak gehitu zaizkio; hona:

“4. Ekainaren 25eko 5/2015 Legeak, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoak, bere 106. Artikuluan araututako eskubideen xedapenen ondoriozko eskubide eta ondasunen eskuraketak izendatzailearen eta izendatutakoaren ondorengoaren arteko ahaidetasun mailaren arabera ordainduko dira.

5. Ekainaren 25eko 5/2015 Legeak, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzkoak, bere 100. Artikuluko 2. Idatz zatiko bigarren tartekian ezarritakoarekin bat etorriz, hirugarren baten herentziaren oinordetza eskubideak xedatzearen ondoriozko uko egitearen onuradunaren eskubide eta ondasunen eskuratzea hirugarren hori hiltzen denean ordainduko da, xedapenaren onuradunaren eta kausatzailearen arteko ahaidetasunaren arabera, eta, halaber, hala badagokio, uko egileari emandako eskubide eta ondasunen balioa kenduko da, hori guztia ematen diren unean baloratutakoaren arabera”

Bederatzi. 26. Artikulua aldatu da eta honela geratu da:

26. artikulua. Sortzapena

1. Heriotzaren ondoriozko eskuraketetan eta bizi aseguruetan, kausatzailea edo aseguruduna hiltzen den egunean sortuko da zerga, edota absentearen heriotza adierazpena irmo bihurtzen denean, Kode Zibilarren 196. Artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza itunen kasuan eta Foru Arau honen 7.1.a) artikuluan uko egiteko definitzen diren oinordetza itunen kasuan, izendatzailea bizirik dagoela gertatuko da zergaren sortzapena, hain zuzen ere eskualdaketa egiten denean.”

2. “Inter vivos” doako eskuraketetan, egintza edo kontratua egiten den egunean sortuko da zerga.

Foru arau honen 7.1.a) artikuluan ezarritako salbuespenetan eta 7.1. artikuluko bigarren paragrafoan ezarritakoaren ondorioz “inter vivos” negozio juridikotzat jotzen diren ondasun eta eskubide eskuraketetan, eskualdatzea gertatzen den egunean sortuko da zerga.

3. Baldintza, epemuga, fideikomiso edo beste edozein muga dagoelako, eraginkortasuna etenik daukaten ondasun eskuraketei dagokienez, aipaturiko mugak desagertzen diren egunean gauzatu direla ulertuko da beti.

4. Gozamen ahalduaren edo testamendu ahalordearen bidez gauzatzen diren herentzietan, zerga hala sortuko da:

a) Gozamen ahalduak edo testamendu ahalordeak ukitzen ez dituen ondasun eta eskubideen eskuraketetan, zergaren sortzapenari buruzko arau orokorraren arabera, hau da, artikulua honetan goragoko idatz zatietan azaltzen den arau orokorraren arabera.

b) Gozamen ahalduak edo testamendu ahalordeak ukitutako ondasun eta eskubideei dagokienez, zerga noiz sortzen den zehazteko, ondoko kasu hauek bereizi behar dira

1. Ondasun edo eskubideen eskuraketaren kausa gozamen ahalduari edo komisarioari esleitutako xedatzeko ahalmena edo testamentu ahalordea baliatu izana bada, (edo haiek esleituta eduki dezaketen beste edozein ahalmen baliatu izana, horrela zerga honen zerga egitatea sortzen bada), zerga sortuko da ahalorde edo ahalmen hori osorik edo zati batean baliatzen den egunean.

2. Gozamen ahalduak edo testamendu ahalordeak ukitzen dituzten ondasun edo eskubideen eskuraketetan, baldin eta xedatzeko ahalmena edo testamentu ahalordea iraungiak bada, haiek osorik edo zati batean baliatu aurretik, zerga sortuko da ahalmena edo ahalordea iraungitzea dakarren zirkunstantzia izaten den egunean.

3. Gozamen ahalduak bada, eta, testamentu ahalordea egonez gero, ahalordea baliatzen ez den bitartean pertsona jakin batek jaraunspeneko ondasun edo eskubide guztien edo horietako batzuen gozamenerako eskubidea badu, gozamenerako eskubideari dagokion Zerga sortuko da gozamina eratu duena hiltzen den egunean edo, hura falta bada, hil delako adierazpena irmo bihurtzen den egunean, Kode Zibileko 196. artikulua arabera.

5. Izendatzailea bizirik dagoela izendatutakoaren oinordetza eskubideak, “inter vivos” edo “mortis causa” egintzen bidez, doan xedatzen direnean, ekainaren 25eko 5/2015 Legeak, Euskal

Zuzenbide Zibilari buruzkoak, bere 106. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, zerga ez da sortuko izendatzailea hiltzen den egunera arte.”

Hamar. 30. artikuluko 1. idatz zatia honelaxe geratu da:

“1. Erreserbapeko ondasunen herentzian, Kode Zibileko 811. artikulua eta Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 118. artikulua arabera, erreserbagileak ordainduko du zerga, gozamen gisa, baina erreserba beren alde eratuta duten ahaide guztiak hiltzen badira edo ahaideok erreserbari uko egiteagatik erreserba iraungi egiten bada, jabetza soilari dagokion zerga ordaindu beharko du erreserbagileak”

Hamaika. 30. artikuluko 3. idatz zatia honela geratzen da:

“3. Kode Zibileko 968, 969, 979 eta 980. artikuluetan eta Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 120. artikuluan aipatzen diren erreserben kasuan, erreserbagileari likidatuko zaio zerga, ondasunen jabari osoa dela eta; nolahi ere, erreserba eragindako ondasunen jabetza soilari dagokion zatiagatik ordaindutakoaren itzulketa jasotzeko eskubidea izango du, egiaztatzen badu ondasunok erreserba hartzaileari eskualdatu dizkiola”

Hamabi. 31. artikulua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“31. artikulua. Bestelako erakundeak

1. Gozamen ahalduen kasuan edo gozamen ahalduaren edo testamendu ahalordearen bidez emandako herentzien komisarioen kasuan izan ezik, betiere eskuratzailerak ondasunak izateko ahalmena duenean, zerga jabetza osoan likidatuko da, betiere, hala badagokio, bidezko itzulketari kalterik egin gabe.

2. Ekainaren 25eko 5/2015 Legean, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoan, araututa dauden komisario bidezko testamentuetatik eta testamentu ahalordeetatik datozen gozamen eskubideak eraenduko dira horietarako Foru Arau honetan berariaz ezarritako arauen bidez”

Hamahiru. 32. artikuluko 1. zenbakia aldatzen da, eta honela geratzen da:

“1. Heriotzaren ziozko oinordetzetan, direnak direla interesdunek egindako banaketak eta adjudikazioak, erabateko berdintasunez eta oinordetzari buruzko arauak betez egin direla pentsatuko da zergaren ondoretarako; berdina da ondasunak lurraldearen baldintzarengatik edo beste edozein arrazoiarengatik Zergaren kargapean egotea edo ez. Horren ondorioz, balioak egiaztatzean gertatzen diren igotzerak eskuratzaileran edo jaraunslen artean hainbanatuko dira.”

Hamalau. Aldatu egiten da 33. artikulua, honela idatzita utziz:

“33. artikulua. Gozamen ahaldu edo testamendu ahalorde bidez gauzatzen diren herentziak

Gozamen ahaldu bat edo testamendu ahalorde bat dagoen herentzietan honako arauak beteko dira:

Lehena. Gozamen ahalduak edo testamendu ahalordeak ukitu eta ekainaren 25eko 5/2015 Legeak, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoak, aipatutako ondasun edo eskubideei dagokienez, honakoa berezi beharra dago:

Bat. Gozamen ahaldua.

1. Gozamen ahaldua dagoenean, alde batetik, Zerga eskatuko zaio gozamen ahaldua duenari, kausatzailearen ondasun edo eskubideen gainean eman zaion gozamen eskubidearengatik. Hain zuzen ere:

a) Baldin eta testamentu ahalordean pertsona jakin bati eman bazaio herentziako ondasunetaz bizi artean gozatzeko eskubidea, gozamen horren likidazio bakarra egingo da, gozamenak kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera, eta biziarteko gozamenei buruzko arauak aplikatuta.

b) Baldin eta testamentu ahalordean gozamina azkentzen bada ahalorde hori erabiltzen denean, gozamen horren bi likidazio egingo dira, gozamedunak kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera:

b.1) Likidazio bat kontura, Foru Arau honetako 26.4.b) artikuluko 3. idatz zatian aipatzen den unean sortzapena izango duena, biziarteko gozamenari buruzko araei jarraituz.

b.2) Beste bat, erregularizaziokoa; honek sortzapena izango du gozamedunak adjudikatuta daukan xedatzeko ahalmena agortzen duen xedapen egintza egiten duen unean, baldin eta xedatzeko ahalmena egintza bakarrean gauzatzen bada; edo gozamedunak xedapen egintza bat egiten duen bakoitzean, baldin eta xedatzeko ahalmena hainbat egintzaren bitartez gauzatzen bada; edo bestela, gozamina beste edozein arrazoirengatik iraungitzen den unean. Bigarren likidazio hori aldi baterako gozamenari buruzko araei jarraituz egingo da. Hasierako datatzat, gozamina eratu duen kausatzailearen heriotzaren eguna hartuko da, edo bestela, gozamenaren eratzaila falta bada, hil delako adierazpena irmo bihurtzen den eguna, Kode Zibilaren 196. Artikuluaren arabera, eta horretan konturako sarrera gisa zenbatuko da lehenengo likidazioan ordaindutakoa. Xedatzeko ahalmena hainbat egintzatan gauzatzen bada, erregularizazioko likidazio bakoitzean konturako sarreratzat zenbatuko da lehenengo likidazioko kuotaren zati bat, likidatzen den egintzan adjudikatutako ondasun edo eskubideei dagokiena.

Lehenengo idatz zati honetan aipatutako gozamenak kalkulatzeko, Foru Arau honen 13. Artikuluan biziarteko gozamenari eta aldi baterako gozamenari buruz ezarritako arauak aplikatuko dira.

3. Beste alde batetik, gozamen ahalorduean, zerga jaraunsean aitorten bakoitzean exijituko da, bakoitza zergadunaren eta kausatzailearen arteko ahaidetasunaren arabera eta egintzan edo egilespean esleitutako ondasun edo eskubideen guztirako zenbatekoa oinarritzat hartuta; likidazioa indarreko tarifa ondasunen edo eskubideen une horretako balioari aplikatuta egingo da eta, hala badagokio, artikuluko honen bigarren arauan xedatutakoa aintzat hartu beharko da.

Bi. Testamentu ahalordea.

1. Testamendu ahalordean, zerga jaraunsean aitorten bakoitzean exijituko da, bakoitza zergadunaren eta kausatzailearen arteko ahaidetasunaren arabera eta egintzan edo egilespean esleitutako ondasun edo eskubideen guztirako zenbatekoa oinarritzat hartuta; likidazioa indarreko tarifa ondasunen edo eskubideen une horretako balioari aplikatuta egingo da eta, hala badagokio, artikuluko honen bigarren arauan xedatutakoa aintzat hartu beharko da.

2. Testamentu ahalordean pertsona jakin bati eskubidea ematen bazaio jaraunspeneko ondasun edo eskubide guztien gozamina edukitzeko testamentu ahalordea erabiltzen ez den bitartean, orduan gozamedunari zerga eskatuko zaio kausatzailearen ondasun edo eskubideen gain eman zaion gozamen eskubidearengatik.

a) Baldin eta testamentu ahalordean pertsona jakin bati eman bazaio herentziako ondasun ez bizi artean gozatzeko eskubidea, gozamen horren likidazio bakarra egingo da, gozamedunak kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera, eta biziarteko gozamenei buruzko arauak aplikatuta.

b) Baldin eta testamentu ahalordean gozamina azkentzen bada ahalorde hori erabiltzen denean, gozamen horren bi likidazio egingo dira, gozamedunak kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera:

b.1) Likidazio bat kontura, Foru Arau honetako 26.4.b) artikuluko 3. idatz zatian aipatzen den unean sortzapena izango duena, biziarteko gozamenari buruzko araei jarraituz.

b.2) Beste bat, erregularizaziokoa; honek sortzapena izango du komisarioak xedatzeko ahalmena agortzen duen xedapen egintza egiten duen unean, gozamedunari eman zaion gozamen eskubidearen edukia osatzen duten ondasun eta eskubide guztiei dagokienez, baldin eta xedatzeko ahalmena egintza bakarrean gauzatzen bada; edo gozamedunak xedapen

egintza bat egiten duen bakoitzean, baldin eta xedatzeko ahalmena hainbat egintzaren bitartez gauzatzen bada; edo bestela, gozamenerako eskubidea beste edozein arrazoirengatik iraungitzen den unean. Osteko likidazio hori aldi baterako gozamenari buruzko araei jarraituz egingo da. Hasierako datatzat, gozamena eratu duen kausatzailearen heriotzaren eguna hartuko da, edo bestela, gozamenaren eratzaila falta bada, hil delako adierazpena irmo bihurtzen den eguna, Kode Zibilaren 196. artikulua arabera, eta horretan konturako sarrera gisa zenbatuko da lehenengo likidazioan ordaindutakoa. Xedatzeko ahalmena hainbat egintzatan gauzatzen bada, erregularizazioko likidazio bakoitzean konturako sarreratzat zenbatuko da lehenengo likidazioko kuotaren zati bat, likidatzen den egintzan adjudikatutako ondasun edo eskubideei dagokiena.

Bigarren idatz zati honetan aipatutako gozamenak kalkulatzeko, Foru Arau honen 13. artikuluan biziarteko gozamenari eta aldi baterako gozamenari buruz ezarritako arauak aplikatuko dira.

Bigarrena. Jaraunsle adierazpenak egintza edo egilespen batean baino gehiagotan egiten badira, kausatzailearen ondasunak xedatzeko emandako ahalmena agortzen duen egintza edo egilespena egiten denean jaraunsleetako bakoitzari dagokion erregularizazioa egingo da, bidezkoa bada.

Hirugarrena. Testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua erabiltzeko epea zehaztuta badago, ordea, konturako likidazio hori aldi baterako gozamenaren arauekin bat egingo da, ahalordea edo ahalmenak erabiltzeko ezarritako dagoen gehieneko epearen arabera.

Aldi baterako gozamenaren araei jarraituz kalkulaturako behin betiko likidazioa egingo da gozamen ahaldua edo testamentu ahalordea erabiltzeagatik edo hori iraungitzeko gainerako kariengatik jaraunsle direnen likidazioa egiten den unean.

Laugarrena. Artikulu honen aurreko arauetan ezarritakoa gorabehera, testamentu ahalordeetan ezkontide alargunari eman bazaio herentziako ondasunez bizi artean gozatzeko eskubidea, gozamen horren likidazio bakarra egingo da, gozamendunak kausatzailearekin duen ahaide-tasunaren arabera, eta biziarteko gozamenei buruzko arauak aplikatuta, testamentu ahalorde hori erabilia izanagatik ere.”

Hamabost. Beste artikulua bat eransten da, 33. bis, eta honela geratzen da idatzita:

“33. bis artikulua. Testamentu ahalordearen eta gozamen ahalduaren ahalmenen erabilera

1. Baldin eta komisarioak edo kausatzailearen ezkontidearen alargunak edo Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako izatezko bikotearenak testamentu ahalordea erabiltzen badu eta horren bidez ezkontza osteko ondasun erkidegoaren ondasun jakin bat —kausatzailearen heriotzak ondasun erkidego foralaren ezkontzaren araubide ekonomikoan eragindako sendotzearen ondorio dena— edo irabazpidezko sozietatearen ondasun jakin bat komisarioaren eta kausatzailearen ondorengo komun bati adjudikatzen badio, baina herentzia banatu eta likidatu gabe, bada, orduan, ezkontide edo izatezko bikotearen kide alargunaren erdia dohaintza gisa likidatuko da eta beste erdia, kausatzailearena, oinordetza gisa.

Ekainaren 25eko 5/2015 Legeak, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoak, bere 142. artikuluan ezarritakoa betetzen ez bada, artikulua horretan aipatzen diren ondasunak ezkontideari edo Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako izatezko bikoteko kideari adjudikatzeak Foru Arau honetako 24. artikuluko a) letran ezarritako zerga tasa finkoaren erdian tributatu du.

2. Jaraunspen batean gozamen ahalduak edo testamentu ahalordeak ukitutako ondasun edo eskubideak eta Foru Zuzenbide Zibileko figura horiek ukitzen ez dituzten ondasun edo eskubideak batera daudenean, azken ondasun edo eskubide horiei dagokienez, zerga eskatuko da Foru Arau honetan ezarritako arau orokorren arabera.

Hala, testamendu ahalorde edo gozamen ahalduaren bidez gauzatzen diren oinordetzetan honako likidazio hauek egingo dira:

a) Lehenengoa, kausatzailea hil eta berehala, testamendu ahalordeak edo gozamen ahalduak ez ukituriko herentziaren zenbatekoaz, zerga honen arau orokorrak aplikatuz.

b) Dagozkion bestelakoak, betiere erabilpen ahalordeak edo ahalmenak ukitutako jaraunspenaren zenbatekoaren gainean, behin ahalordea edo ahalmena osorik eta zatiz modu ezeztazinean erabili ondoren, edo erabilera ahalmena edo testamendu ahalordea iraungitzen diren kasuetan osorik edo zatiz erabili baino lehen, ahalmenaren edo ahalordearen iraungipena eragin duen zirkunstantzia izaten den egunean.

3. Gozamen ahalduaren edo testamendu ahalordearen figuren bidez osorik edo zatiz gauzatutako jaraunspen guztietan, ondorengo bati dagozkion eskuraketa guztiak pilatuko dira, zergaren likidazioaren ondoretarako eta Foru Arau honetan ezarritako zerga oinarriaren txiki-penen aplikazioari begira.

Gainera, metaturiko likidazioen zioz aurretik ordaindutako kuotak metatzearen ondorioz egiten den likidazioan kendu ahalko dira.”

Hamasei. Beste artikulua bat eransten da, 33 ter, eta honela geratzen da idatzita:

“33 ter artikulua. Herentzia bidezko eskurapenen metaketa

1. Kausadun batek kausatzaile jakin batengandik oinordetza beraren ondorioz lortzen dituen ondare gehikuntza guztiak herentzia bidezko eskurapen bakartzat joko dira, nahiz eta oinordetza titulu baten baino gehiagoren bidez lortuak izan.

2. Hori dela eta, jasotzen diren ondasun eta eskubide eskurapen guztiak metatu egingo dira, izan horiek eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza itunengatik jasotakoak, izan testamentu ahalordea osorik edo partez erabili edo hura azkentzeko beste arrazoiak gertatzeagatik egindakoak, izan testamentugileak berak testamentuan zuzenean xedatutakoak, edo haren faltan, legean ezarritakoak, izan gozamendun ahalduak erabiltzeko duen ahalmenaren erabileragatik egindakoak.

3. Artikulu honetako aurreko bi ataletan aipatu diren ondare gehikuntza guztiak ondorengotza eskuratze bakartzat joko dira zerga likidatze aldera, beraz, zerga kuota zerga oinarri guztien baturaren arabera lortuko da, Foru Arau honetan araututako murrizketen artean, dagozkion zerga oinarriaren murriztapenak behin bakarrik aplikatuz.

Gainera, metaturiko likidazioen zioz aurretik ordaindutako kuotak metatzearen ondorioz egiten den likidazioan kendu ahalko dira.”

Hamazazpi. Beste artikulua bat eransten da, 33 quater-a, eta honela geratzen da idatzita:

“33 quater artikulua. Itzulketetan likidatzeko arauak

1. Mantenu beharra duen oinordetza itun baten bidez eskualdatu diren ondasunak eratzaileri itzultzen bazaizkio, beste likidazio bat egingo da, Foru Arau honetako 13. artikuluan aldi baterako gozamenei buruz ezarritako arauak betez, eta itzuli diren ondasunak eskualdatu zirenean egindako likidazioaren aldean gaindikinik badago, berriz, gaindikin hori itzuli egingo zaio zergadunari”.

2. Itzulitako ondasunak ez dira kausatzailearen herentzian metatuko –metaketa hori Foru Arau honen aurreko artikuluan aipatzen da–, baldin eta ondasunoi artikulua honen aurreko apartatuan xedatutakoa aplikatu bazaie.”

Hamazortzi. Beste artikulua bat eransten da, 33 quinque, eta honela geratzen da idatzita:

“33 quinque artikulua. Alargunaren senipartea ordaintzea eta ondasunak jabari osoarekin ematea

Kode Zibileko 839. eta 840. artikuluetan edo Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 53. artikuluan ezarritakoari jarraiki bizirik dirauen ezkontideari edo Eusko

Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikoteko kideari bere senipartedun hartzekoa gozamina ez den eran edo kontzeptuan ordaintzen bazaio, likidazioa egingo da adjudikatutako ondasunen balio egiaztatuaren eta gozamenari esleitutakoaren baterako kopuruaren gainean, Foru Arau honetako 13. artikuluko arauari jarraikiz. Horren ondorioz, jaraunslerei ez zaie likidaziorik egingo jabetza soilarengatik, ezta gozamina iraungitzeagatik ere —halakorik gertatzen den egunean—.

Hala ere, gozamina ez den eran adjudikatutakoaren balioa handiagoa edo txikiagoa bada ezkontide edo izatezko bikoteko kide alargunari dagokiona baino, gairikina edo diferentzia adjudikazio gairikina gisa likidatuko da: lehenengo kasuan, jaraunslen onuradunaren edo onuradunen kontura; bigarrenen, ezkontide edo izatezko bikoteko kide alargunaren kontura.”

Hemeretzi. 34. artikuluko 1. idatz zatiari paragrafo bat gehitzen zaio; hona testua:

“Idatz zati hau ez da aplikatuko Foru Arau honen 7. artikuluko 1 idatz zatiko a) letraren d) letrak aipatzen dituen uko egiteen itunetan”

Hogei. 34. artikuluko 2. idatz zatiari bigarren paragrafo bat gehitu zaio; honakoa:

“Hala ere, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 100. artikuluko 2. idatz zatiko bigarren tartekian ezarritakoarekin bat etorritik, hirugarren baten herentziaren uko egiteko itunak badaude, ez zaio zerga eskatuko Foru Arau honen 23. artikuluko 5. idatz zatiaren arabera tributatu zuen uko egileari, hala bazegokion.”

Hogeita bat. 34. artikuluko 4. idatz zatia gehitu zaio; hona:

“4. Bizirik dirauen ezkontidearen ukoaren ondorioz ondasunen foru komunikazioaren araubidearen emaitzako ezkontza sozietateari edo irabazpidezko sozietateari dagokionez uko egindako ondasunak, Zergaren likidazioan, hildakoak utzitako ondasuntzan sar daitezten, ukoa hutsa, soila eta doakoa izan behar da eta eskritura publikoan egin behar da kausatzailea hil aurretik. Baldintza horiek betetzen ez badira, likidazioa egingo da uko egin duenak haren onuraduni dohaintza egiteagatik.

Idatz zati honetan ezarritakoa Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikoteei ere aplikatuko zaie.”

Hogeita bi. 36. artikuluko 2. idatz zatia aldatzen da eta honela geratzen da:

“2. Aurreko idatz zatian aipatutako dohaintzak eta parekagarriak diren gainerako doako eskualdaketak eta dohaintza emaileak dohaintza hartzailearen alde egindako edozein titulu dela bide egindako oinordetza eskualdaketak, salbu eta Foru Arau honetan salbuesitatzat jotzen diren ondasunen “mortis causa” eskuraketak badira, eskuraketa bakartzat hartuko dira zerga kuota zehazteko orduan, betiere baldin eta horien arteko epea ez bada lau hiru baino luzeagoa. Zerga kuota zerga oinarri guztiak batuz lortuko da. Metatutako likidazioengatik lehendik ordaindutako kuotak kendu ahal izango dira ingesatutakotik, eta, hala dagokionean, ingesatutako osoa edo zati bat itzuli beharko da.

Aurreko paragrafoaren ondoretarako, metaketa egiteko batu egin behar da azken eskualdaketari dagokion sortzapenaren egunaren aurreko hiru urteetan eskuratutako ondasun edo eskubideen balioa.

Aurreko artikuluan aipatutako dohaintzak edo eskualdaketak ezkontide biek ezkontza sozietatearen ondasun komunak erabiliz egin badituzte, metaketak bakarrik eragingo dio kausatzaileari egotzi ahal zaion balioaren parte proportzionalari, eta kengarria izango da dohaintzari edo parekagarria den gainerako doako eskualdaketa horri dagokion kuotaren zatia.

Metatutako eskuraketak egin ziren egunean egiaztatu zitzaizen balioaren arabera konputatuko dira, nahiz eta metaketaren unean balio hori aldatuta egon.

Idatz zati honetan ezarritakoa Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikoteei ere aplikatuko zaie.”

Hogeita hiru. 38. artikuluko 2. zenbakia aldatzen da, eta honela geratzen da:

“2. Gozamen ahalduari edo testamendu ahalordeari lotutako jaraunspenetan, jaraunspenaren gozamendunak edo komisarioak zerga aitortpena aurkeztu behar du, kausatzailea zendu dela egiaztatuz. Aitortpen horretan komisarioak ezinbestean bete beharko du Foru Arau honen 38 bis artikulua ezarritakoa.

Idatz zati honetan aipatzen diren herentzietan, gozamenaren eskubideagatik eta testamendu ahalordeak edo gozamen ahalduak ukitutako ondasunegatik gozamen ahalduaz edo komisarioaz bestaldeko zergadunek ezingo dute autolikidaziorik aurkeztu, harik eta testamentu ahalordea modu ezeztazinean erabili arte –partzialki zein osorik–, edo hura azkentzeko dauden beste arrazoietako bat gertatu arte.

Gozamen ahalduaren bitartez edo komisario bidezko testamentuaren bitartez gauzatzen diren jaraunspenetan arau bidez ezarri ahalko dira gozamendun ahalduaren edo komisarioaren bestelako betebeharrak formalak.”

Hogeita lau. 38. artikuluari 9. idatz zatia gehitu zaio; hona:

“9. Zerga honen araudiari baimena ematen zaio, hala badagokio, autolikidazioak aurkezteko epeak egoki ditzan euskal zuzenbide zibilari darizkion berezitasunen arabera.”

Hogeita bost. Artikulu bat gehitu da, 38 bis artikulua. Hona testua:

“38. bis artikulua. Komisarioaren betebeharrak testamentu ahalordearen edo gozamen ahalduaren menpeko herentzietan

1. Estamentu ahalordearen edo gozamen ahalduaren menpeko herentzietan, komisarioak, 6 hilabeteko epea du, kausatzailea hiltzen den egunetik aurrera edo heriotza adierazpenak Kode Zibilarren 196. artikuluan aipatutako irimotasuna hartzen duenetik aurrera, herentziako ondasunen inbentarioa eta ahalordearen frogagiriak aurkezteko. Gainera, Zerga Administrazioak egoki irizten duen beste edozein agiri aurkezteko eskatu diezaiotke.

Komisarioak Zerga Administrazioari jakinarazi behar dizkio testamentu ahalordea erabiltzearen zain dagoen herentziako ondare elementuen inbentarioan gertatzen diren aldaketak, baldin eta ondare aldaketa horiek ez badute Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapena eragiten. Komunikazio hori ondare aldakuntza gertatzen denetik hilabete igaro aurretik aurkeztu behar da; berarekin batera aldakuntzaren frogagirien kopia aurkeztu behar dira.

2. Era berean, hilabeteko epean, testamentu ahalordea modu ezeztazinean –hala partzialki nola osorik– erabiltzen den egunetik edo hura azkentzeko arrazoietako bat gertatzen den egunetik aurrera, komisarioak aurreko alderdi horien berri eman behar dio Zerga Administrazioari, eta ahalordea erabili dela egiaztatzeko dokumentazioa ere aurkeztu behar dio, edo, bestela, ahalordea azkendu dela justifikatu.

3. Artikulu honetan ezarritakoa gozamendun ahalduari ere izango zaio aplikagarri.”

Hogeita sei. 39. artikuluko 3. idatz zatiari bi paragrafo gehitu zaizkio, hirugarrena eta laugarrena; hona:

“Gainera, notarioek, hil bakoitzeko lehen hamabost egunen barruan, zerrenda bat bidali behar diote Arabako Foru Aldundiari, eta bertan adierazi aurreko hilean baimendu dituzten testamentuetatik zeinetan erabili duen herentzia baten komisarioak testamentu ahalordea edo gozamendun ahalduak ahalmena modu ezeztazinean; orobat, bertan zehaztu behar dute komisarioa edo gozamendun ahalduak nor izan den eta zein den ahalordea erabiltzea ekarri duen herentziaren kausatzailea. Notarioek baimendutako agiri guztien artetik testamentu ahalordea erabilita dutenak baino ez dira agertu behar zerrenda horretan, are ahalordea gozamendun ahalduaren edo komisarioaren testamentuan erabili denean ere.

Era berean, notarioek, aurreko paragrafoan ezarritako epealdi berean, Arabako Foru Aldundiari ezinbestean igorri beharko diote Euskal Zuzenbide Zibilaria buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 43. artikulua aipatutako testamentu ahalordearen jardunaren menpeko herentziaren ondasunen komisarioaren edo gozamenaren ahalduaren xedatze egintzei buruz beraiek baimendutako dokumentu guztien zerrenda bat.”

Hogeita zazpi. Aldatu egiten da 47. artikulua, honela idatzita utziz:

“47. artikulua. Zigor araubidea

1. Artikulu honen hurrengo idatz zatietan ezarritakoari kalterik egin gabe, Foru Arau honetan araututako zergaren arau haustek zehatuko dira Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak eta arauzko garapen xedapenek ezarritakoaren arabera.

2. Ondasun edo eskubideen eskurapen salbuetsiengatik egiten diren autolikidazioak edo murriztapenak aplikatuta egiten direnak epez kanpo aurkezten badira, eta haien zenbatekoa zerga oinarriaren berdina edo handiagoa bada, eskuratutako ondasun eta eskubideen balio garbiaren 100eko 0,1eko diruzko isun proportzionala ezarriko da; isuna, zergadun bakoitzeko, 600 eurokoa izango da gutxienez, eta 9.000 eurokoa gehienez.

3. Testamentu ahalordearen edo gozamen ahalduaren bidezko herentzien komisarioari edo, hala badagokio, gozamenaren ahalduari Foru Arau honetako 38. artikuluan ezarritako betebeharrak berariaz araututako epean ez betetzea zerga alorreko arau haustetzat joko da, eta honako arau hauen arabera zehatuko da:

a) Komisarioak edo, hala denean, gozamenaren ahalduak ez badu aurkezten herentziako ondasunen inbentarioa edo inbentarioan izandako aldaketan dokumentazioa –aldaketa horrek zergaren sortzapena ekarri gabe–, edo ahalordearen frogagiria, 600 euroko diruzko isun finkoa ezarriko da.

b) Salbuetsitako eskurapenetan, edo aplikatutako murriztapenak zerga oinarriaren parekoak edo handiagoak dituzten eskurapenetan, ez bada jakinarazten testamentu ahalordea erabili dela edo hura azkentzeko beste arrazoi bat gertatu dela, eskuratutako ondasun eta eskubideen balio garbiaren 100eko 0,1eko diruzko isun proportzionala ezarriko da; isuna, zergadun bakoitzeko, 600 eurokoa izango da gutxienez, eta 9.000 eurokoa gehienez.”

Hogeita zortzi. Hirugarren xedapen gehigarri berria gehitu da, honakoa dioena:

“Hirugarrena. Testamentu ahalordea baliatzeke duten oinordetzen eta orainean eraginkortasuna duten oinordetzako hitzarmenen araubide iragankorra.

1. Ezkontide edo izatezko bikotearen (bikote hori Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak ezarritakoaren arabera osaturik badago), odol bidezko aurreko zein ondorengo zuzeneko ahaide edo adopzio hartzaile zein adoptatuen herentziazko eskuraketan kasuan (testamentu ahalordearen edo gozamen ahalduaren ahalmenen erabilera partzialaren ondoriozkoak diren eta 2013ko abenduaren 17an edo egun horretatik zenbatzen hasita sei hileko epean iraungi ez diren edo guztiz erabili ez diren eskuraketan kasuan), metatu egingo dira oinordeko berari dagozkion kausatzaile beraren eskuraketa guztiak, eta eskuraketok bakartzat hartuko dira Foru Arau honetan araututako murrizketak behin bakarrik aplikatzeko. Eskuraketa horien ondoriozko ondasun eta eskubideen balioa haiek sortu zirenekoa izango da.

2. Inola ere ez dira eskuraketak metatuko kausatzaile eta oinordeko berari dagozkien beranduagoko sortzapenen zerga oinarriak handitzeko.

3. Berdin jardungo da 2013ko abenduaren 17a baino lehen sortu eta unean bertan eragina duten oinordetza itunen kasuan.”

III. KAPITULUA

PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA

3. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga aldatzea

Hainbat aldaketa egin dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan:

Bat. 10. artikuluari 3. idatz zatia gehitu zaio; hona:

“3. Orobat, herentzien gaineko zerga honen zergadunak ere izango dira testamentu ahalordea edo gozamen ahalduna erabili gabe duten herentziak.

Bi. 11. artikuluari 4. idatz zatia gehitu zaio; hona:

“4. Testamentu ahalordea edo gozamen ahalduna erabili gabe duten herentzietan ez zaie aplikatuko errentak esleitzeko araubidea, eta zergapetuko dira erakunde hauei dagozkien xedapen zehatzetan ez ezik Foru Arau honen 12. artikuluko 6. idatz zatian ere ezarritakoaren arabera”

Hiru. 12. artikuluari 6. idatz zatia gehitu zaio; hona:

“6. Testamentu ahalordea edo gozamen ahalduna erabili gabe duten herentzietan dagozkien errenta etekinak eta egozpenak herentziako ondasunen gozamenaren esleitzeko zaizkio, haien jatorriaren edo iturriaren arabera. Aurreko 3. zenbakian xedatutakoa gorabehera, ekonomia jardueren etekinak gozamenaren egotziko zaizkio, ekonomia jardueren etekin modura esleitu ere.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, Foru Arau honen 35. artikuluan aipatzen diren kapital higigarriaren etekinak eta ondasunak edo eskubideak eskualdatzearen ondorioz eskuratutako ondare irabaziak eta ondare galerak, baldin eta testamentu ahalordea edo gozamen ahalduna noiz erabili zain dauden jaraunspenen baitako besteren kapitalen erakarpina eta erabilera ordeztzen dituzten aktiboak eskualdatuz lortzen badira, baldin eta eskualdaketa horrek ez badakar Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapenik, herentziari berari eratzikiko zaizkio eta Foru Arau honen hogeita hamargarren xedapen gehigarriak ezarritakoaren arabera kargatuko dira.

Gozamen eskubiderik ezartzen ez zaien ondasun edo eskubideei dagokienez, herentziari berari esleitzeko zaizkio, eta Foru Arau honen hogeita hamargarren xedapen gehigarriak ezarritakoaren arabera zergapetuko dira.

Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 140. artikuluan ezarritako ezkontza ondoko erkidegoaren errentak, testamentu ahalordea erabili bitartean, erdi bana esleitzeko zaizkie ezkontide alargunari eta testamentu ahalordea erabiltzearen zain dagoen herentziari, aurreko hiru paragrafoetan ezarritako arauarekin bat etorriz.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratzeko bikoteei ere aplikatuko zaie, baldin eta bikoteak hautatutako ondare araubide ekonomikoari Euskal Zuzenbide Zibilaren Legearen manu hori aplikagarri bazaio.”

Lau. 35. artikuluko 4. idatz zatia honela geratzen da:

“4. Artikulu honetan aipatutako besteren kapitalak erakarri eta erabiltzea ordezkatzeko duten aktiboak direla eta, zergadunaren heriotzaren zioz halako aktiboak kostu gabe eskualdatzen badira ulertuko da ez dagoela kapital higigarriaren etekinik, eta ez da kapital higigarriaren etekin negatiborik konputatuko “inter vivos” doako eskualdaketa ondorioz.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da doako eskualdaketa egiten denean komisarioak testamentu ahalordea, gozamen ahalduna edo oraingo eraginkortasuneko oinordetza tituluren bat erabiltzearen ondorioz. Hori dela eta, oinordetza titulua zein diren Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 7. artikuluan ezarri da.

Aurreko paragrafoan aipatu diren kostu gabeko eskualdaketetan, alegia, eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza tituluen bidezko kostu gabeko eskualdaketetan, besteren kapitalak erakarri eta erabiltzea ordezkatzeko duten aktiboen eskualdatzaileari dagokionez, eskuraketa balioa, hurrengo eskualdaketetarako, dohaintza emaileak aktibo horiek dohaintza hartzaileari ematean duten balioa izango da, dohaintza hartzaileak aktiboak dohaintza emailea hil aurretik eskualdatu ezean. Izan ere, hala gertatzen bada, dohaintza hartzailea dohaintza emailearen lekuan subrogatuko da aktibo horien eskuraketa balio eta datei dagokienez, eta azken horrek eraginkortasuna unean bertan duen oinordetza itunaren aurretik zituen balio eta datak atxikiko ditu.”

Bost. Hona hemen nola geratu diren idatzita³⁶. artikulua 1. idatz zatiko d) eta e) letrak:

“d) Errenta geroratuak, biziartekoak edo aldi baterakoak jasotzen direnean, baldin eta ez badira eskuratu jaraunspen bidez, ez legatu ez bestelako oinordetza titulu baten bidez, kapital higigarriaren etekina kalkulatzeko aurreko b) eta c) letretako ehuneko egokia aplikatu behar zaio urteko zenbatekoari, errenta eratu arte lortutako errentagarritasunaren zenbatekoa gehituz (errenta hau arauz ezartzen den moduan kalkulatu da). Errentak dohaintzaz edo dohainik eta “inter vivos” egindako beste edozein negozio juridikoren bidez eskuratu direnean (salbu eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza tituluak), kapital higigarriaren etekina hau bakarrik izango da: aurreko b) eta c) letretan jasotako portzentajea urteko zenbateko bakoitzari aplikatuz ateratzen den emaitza.

Aurreko paragrafoan jasotakoa gorabehera, zergaren zerga oinarrian sartuko dira, kapital higigarriaren etekin gisa, erregelamendu bidez finkatzen den moduan, Foru Arau honek 18. artikulua a) letran aipatutakoak ez diren eta haien indarraldian aseguru kontratuaren horniduretan inolako mobilizaziorik izan ez duten bizi edo elbarritasun aseguru buruzko kontratuen onuradunek errenta moduan jaso dituzten erretiro eta elbarritasun prestazioak, haien zenbatekoa kontratua dela-eta ordaindutako prima baino handiagoa den momentutik aurrera. Errentak eskuratu badira dohaintzaz edo dohainik eta “inter vivos” egindako beste edozein negozio juridiko bidez (salbu eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza tituluak), aldiz, zerga oinarrian sartuko dira prestazio horiek errenten eraketa uneko balio aktuariala baino handiagoak direnean. Kasu horietan, ez dira aplikatuko aurreko b) eta c) letretan jasotako portzentajeak. Erretiro prestazioen kasuan araubide hau aplikatuko bada, beharrezkoa da aseguru kontratua gutxienez erretiro data baino bi urte lehenago hitzartu izana.

e) Jaraunspenez, legatuz edo bestelako oinordetza titulu baten bidez eskuratu ez diren aldi baterako edo biziarteko errentak azkenduz gero, eragilea erreskatatzeko eskubidea baliatzea izan bada, kapital higigarriaren etekina honela kalkulatu behar da: erreskatearen zenbatekoari ordu arte ordaindutako errentak batu behar zaizkio eta emaitzako kopurutik ordaindutako primak eta idatz zati honetako aurreko letren arabera kapital higigarriaren etekin gisa kargatutako zenbatekoak kendu. Errentak dohaintza bidez edo kostu gabeko “inter vivos” negozio juridiko baten bitartez (salbuespena: oraingo eragina daukaten oinordetza tituluak) eskuratu badira, errentak eratu arte metatutako errentagarritasuna ere kendu behar da

Sei. 41. artikuluko 1. idatz zatia honela geratzen da:

“1. Honako kasu hauetan, ondarearen osaera ez dela aldatzen ulertuko da, baldin eta ez bada gertatzen adjudikazio gairik:

a) Gauza erkidea zatikatzen denean.

b) Irabazpidezko sozietatea edo ondasunen foru komunikazioa desegiten denean, ezkontzako partaidetzako araubide ekonomikoa azkentzen denean eta izatezko bikote baten ondare araubide ekonomikoa azkentzen denean, baldin eta aurreko araubide ekonomikoetako bat itundu badute.

c) Ondasun erkidegoak desegiten direnean edo erkideak banantzen direnean.

Zenbaki honetan aipatzen diren kasuek ezingo dute inola ere ekarri jasotako ondasunen edo eskubideen balioa eguneratzea.”

Zazpi. 41. artikuluko 2. idatz zatiko b) letra aldatu da eta honela geratu da:

“b) Zergadunaren heriotzaren ondorioz egiten diren dohaineko eskualdaketetan, dohaineko eskualdaketa hori komisarioak testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua erabilia edo unean bertan eragina daukan oinordetza titulu bat dela bide egiten denean ere.

Hori dela eta, oinordetza tituluak zein diren Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 7. artikuluan ezarri da.”

Zortzi. Honela geratzen da 46. artikulua:

“46. artikulua. Kostu gabeko eskualdaketak

Eskuraketa edo eskualdaketa kostu gabekoa denean, aurreko artikuluko arauak izango dira aplikagarriak, eta balio bakoitzaren benetako zenbatekotzat Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren arauak aplikatuz ateratako balioak hartuko dira.

Foru arau honetako 41. artikuluko 2. paragrafoaren b) letran aipatzen diren kostu gabeko eskuraketetan, alegia, eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza tituluen bidezko kostu gabeko eskualdaketetan, eskuraketa balioa, hurrengo eskualdaketetarako, dohaintza emaileak aktibo horiek dohaintza hartzaileari ematean duten balioa izango da, dohaintza hartzaileak aktiboak dohaintza emailea hil aurretik eskualdatu ezean. Izan ere, hala gertatzen bada, dohaintza hartzailea dohaintza emailearen lekuan subrogatuko da aktibo horien eskuraketa balio eta datei dagokienez, eta azken horrek eraginkortasuna unean bertan duen oinordetza itunaren aurretik zituen balio eta datak atxikiko ditu.

Foru arau honetako 41. artikuluko 2. zenbakiko c) eta f) letretan aipatutako kostu gabeko eskuraketetan, dohaintza hartzailea dohaintza emailearen lekuan subrogatuko da ondasunen eskuraketa balio eta datei dagokienez. c) letrak aipatutako eskuraketetan, aurrekoa ez da aplikagarria izango azken aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondoriozko proportzioari dagokion eskuraketa balioari dagokienez.”

Bederatzi. 47. artikuluko 1. idatz zatiari ñ) eta o) letra berriak gehitu zaizkio; hona:

“ñ) Balio aldaketa gertatzen bada ondasunen foru komunikazioari loturiko ezkontideen ondasunak edo ezkontza horretako ondasunak besterentzean direnean. Ezkontzak bere hartan dirauela, foru komunikazioaren araubidean dagoen ezkontide baten ondasun bat eskualdatzen bada, irabazia edo galeraren zenbatekoa haren eskuraketa balioaren eta eskualdaketa balioaren arteko diferentzia izango da eta ondasunaren titular den ezkontidearen errentan konputatuko da.

Foru komunikazioaren ondorioz, aurrez hildako ezkontide batengandik datorren ondasun bat beste ezkontideari adjudikatzen bazaio ezkontza desagitean, eta azken horrek gero eskualdatu egiten badu ondasun hori, orduan, ondare irabazia edo galera kalkulatzeko, hildako ezkontideak ondasuna eskuratu zueneko balioa hartuko da eskuraketa baliotzat, edota ezkontza egin zenekoa, ezkontza eskuraketaren ostean egindakoa bada.

Tratamendu bera aplikatuko zaie izatezko bikoteei, izatezko bikotearen araubide ekonomikoarena bada.

o) Testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua baliatzearen zain dagoen herentzia bateko ondasunak besterenduz gero, ondarean gertatu den irabazia edo galera kalkulatzeko oinarritzat hartuko den ondare elementuaren eskuraketa balioa testamentua egiteko ahalordea edo gozamen ahaldua erabiltzen den unekoa izango da.

Hamar. 114. artikuluko 4. idatz zatia honela geratzen da:

“4. Errenten egozketaren araubideko erakundeek, jarduera ekonomikoak egiten badituzte, egindako jarduerari dagozkion liburuak soilik eraman behar dituzte, euren bazkide, jaraunslak, erkide edo partaideei egin behar dieten etekin egozketaren kalterik gabe.

Halaber, testamendu ahalordea edo gozamen ahalduna erabili gabe duten herentziek liburuak eraman beharko dituzte, baldin eta jarduera ekonomikoak garatzen badituzte edo jarduera horien ondorioz etekinak egozten bazaizkie.”

Hamaika. Honela geratzen da 117. artikulua:

“117. artikulua. Zergadunaren ondare erantzukizuna

Zerga honengatik sortutako zerga zorrek eta zerga zehapenek Kode Zibileko 1.365. artikuluan aipatutako ena izaera bera izango dute. Ondorioz, ondasunen foru komunikazioan, irabazpidezko ondasunek edo irabazitako ondasunek zuzenean erantzungo diote Foru Aldundiari, zor eta zehapen horiek direla eta, baldin eta ezkontideetako batek hartutakoak badira; nolana ere, Foru Arau honetako 98.5 artikuluan baterako tributaziorako ezarritakoa ere aplikatzekoa izan daiteke.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa aplikagarri ere izango zaie Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikoteei, betiere aurreko paragrafoak aipatzen dituen kasu berberetan.”

Hamabi. Xedapen gehigarri berria gehitu da, hogeita hamargarrena. Hona testua:

“Hogeita hamargarrena. Testamendu ahalordea edo gozamen ahalduna erabili gabe dauden herentzien zerga araubidea.

Lehenengoa. Xedapen gehigarri honek, Foru Arau honen artikuluetan ezarritako berezitasunekin batera, arautzen du testamendu ahalordea edo gozamen ahalduna erabili gabe dauden herentzien zerga araubidea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan.

Herentziaren kausatzaileak, heriotzaren unean, Araban izan badu ohiko bizilekua, Arabako Foru Aldundiari dagokio aipatutako zerga ordainaraztea aurreko paragrafoan jasotako xedapenak aplikatuta.

Bigarrena. Arau zehatzak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan.

1. Errentak baldin badatoz testamentu ahalordea edo gozamen ahalduna erabili gabe duten herentzietatik, Foru Arauak bere 12. artikuluan 6. idatz zatian jasotakoaren arabera, errenta horiei aplikatuko zaizkie aipatutako Foru Arauan ezarritako xedapen orokorrak eta hura garatzen duten arauzko xedapenak, bigarren zenbaki honetako idatz zatietan jasotzen diren berezitasunekin.

2. Kausatzailea hil aurreko bi urteetan zehar kausatzailearekin etxebizitzan bizi izan den bikotekide alargunaren ohiko etxebizitza eskualdatzearen ondorioz lortzen diren ondare irabaziak edo galerak zerga honetatik salbuetsita egongo dira, testamentu ahalorde edo gozamen ahaldun bat gauzatzeko duen jaraunspenaren zati bat bada, eskualdatze horrek Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapena dakarrenean eta, betiere, eskualdaketan lortutako zenbatekoa bikotekide alargunarentzako ohiko etxebizitza berri bat eskuratzeko inbertitzen bada, Foru Arau honetan ezarritakoaren arabera. Ondore horietarako, ohiko etxebizitzat hartuko da Foru Arau honen 87. artikuluan 8. idatz zatian ezarritako baldintzak betetzen dituen. Berrinbertitutako zenbatekoa txikiagoa bada eskualdaketan jasotako zenbateko osoa baino, lortutako ondare irabazian berrinbertitutako zenbatekoari dagokion zati proportzionala baino ez da utziko zergapetu gabe.

Era berean, zerga honetatik salbuetsita egongo dira ohiko etxebizitzaren kostu bidezko eskualdaketa dela-eta edo ohiko etxebizitza ordainean ematearen ondorioz sortzen diren ondare irabaziak, Foru Arau honen 42. artikuluan b, c eta e letretan aipatuak, etxebizitza hori testamentu ahalorde edo gozamen ahaldun bat gauzatzeko dagoen jaraunspenaren barruan dagoenean, baldin eta eskualdaketa horrek ez badu Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga sorrazten, eta betiere baldin eta ezkontide alarguna kausatzailearekin batera ohiko etxebizitzan bizi izan bada kausatzailea hil aurreko bi urteetan, eta hori aplikatzeko aipatutako letretan ezarritako betekizunak betetzen baditu.

3. Honako arau hauek aplikatuko dira zerga oinarria zehazteko:

a) Testamentu ahalorde bat edo gozamen ahalduen bat gauzatzeko duen herentziako zati diren eskubideak eta ondasunak eskualdatzearen ondorioz lortzen diren ondare irabazi eta galerak, eskualdatze horrek Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapena ez dakarrenean, herentziaren bidez lortutakotzat joko dira eta Foru Arau honetan kostu bidezko eskualdaketetarako ezarri diren arauekin bat etorritik zehaztuko dira; gauzak horrela, ondasunen eta eskubideen eskuraketaren balioa eta data izango dira bai kausatzaileak bai herentziak horiek eskuratzeko unea.

b) Foru Arau honen 35. Artikuluan aipatutako kapital higigarriaren etekinak, baldin eta testamentu ahalordea edo gozamen ahalduen erabiltzearen zain dauden herentzien baitako besteren kapitalen erakarpina eta erabilera ordeztzen dituzten aktiboak eskualdatuz lortzen badira, eta eskualdaketa horiek Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapena ez badakarte, herentziaren bidez lortutakotzat hartuko dira eta Foru Arau honetan ezarritako arauen arabera zehaztuko dira; gauzak horrela, eskuraketaren xede diren aktiboen eskurapenaren balioa eta data izango dira bai kausatzaileak bai herentziak horiek eskuratzeko unea.

c) Jarduera ekonomikoen etekinak testamentu ahalordea edo gozamen ahalduen erabiltzearen zain dauden herentziaren bidez lortutakotzat hartuko dira betiere, kontuan hartu gabe Foru Arau honetako 24. Artikuluko 1. Idatz zatian ezarritako betekizuna betetzen duten ala ez.

4. Likidazio oinarri orokorra kalkulatzeko, hala badagokio, testamentu ahalordea edo gozamen ahalduen erabiltzearen zain dagoen jaraunspenaren kargura epailearen erabakiz ordaindu den mantenurako urtekoaren ondoriozko murrizketa soil soilik aplikatuko zaie zerga oinarri orokorrari eta aurrezkiaren zerga oinarriari, betiere Foru Arau honetako 67. eta 69. artikuluek eta ekainaren 25eko 5/2015 Legeak, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

5. Zergaren kuota likidua kalkulatzeko, kuotan aplikatuko diren kenkari bakarrak Foru Arau honen 51. artikuluan 8. idatz zatian, 88. artikuluan eta 92. artikuluan ezarritakoak izango dira.

6. Testamentu ahalordea edo gozamen ahalduen erabili gabe duten herentzietan dagozkien oinarri likidagarri negatiboak, jarduera ekonomikoen etekinen saldo negatiboak, zerga oinarri orokorraren ondare galerak, eta kuota nahikoa ez izateagatik aplikatu ez diren kuotako kenkariak bakar-bakarrik konpentsatu daitezke, zerga araudiak baimentzen duenean, herentzia horietan dagozkien oinarri likidagarri positiboekin, jarduera ekonomikoen etekinetatik datozen saldo positiboekin, zerga oinarri orokorraren ondare irabaziekin eta kuota positibo osoekin.

7. Testamentu ahalordea edo gozamen ahalduen erabili gabe duen herentziak zerga ordaintzeko betebeharra du, eta haren betebeharra da, era berean, xedapen gehigarri eta Foru Arau honetan eta hura garatzen duten arauzko xedapenetan ezartzen diren gainerako betebeharrak betetzea.

8. Testamentu ahalordearen edo gozamen ahalduen erabilera oso eta ezeztazina edo hori azkentzeko beste edozein arrazoi abenduaren 31 ez den beste egun batean gertatzen bada, zergaldia urte naturala baino laburragoa izango da. Hala denean, zergaldia egun horretan amaitu, eta zerga orduan bertan sortuko da.

Hirugarrena. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari eta Ondarearen gaineko Zergari begirako xedapen erkideak.

1. Testamentu ahalordea edo gozamen ahalduen baliatzearen zain dauden herentziaren betebeharrak formal eta materialak, herentziaren administratzaileak edo gozamen ahalduen betebeharko dituen hurrenez hurren.

2. Testamentu ahalordea erabili gabe duen herentziaren administratzailea eta gozamen ahalduen erabili gabe duen herentziaren gozamen ahalduen erantzule subsidiarioa izango da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren ordaintzari dagokionez.

3. Testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua erabili gabe duen herentziako ondasun eta eskubideek Pertsona Fisikoen gaineko Errentaren Zergan eta Ondarearen gaineko Zergan tributatuko dute, haien edukizailea zeinahi dela ere, salbu eta edukizaile hori erregistroko fede publikoak babestutako hirugarren bat bada, edo, ezin inskriba daitezkeen ondasun higigarrien kasuan, onustez eta titulu zuzenarekin justifikatzen bada ondasun eta eskubideok merkataritzako edo industriako establezimendu batean eskuratu direla.

Horretarako, aurreko paragrafoan aipatutako ondasun eta eskubideen eskualdaketan, ondasun eta eskubide horiek testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua osorik edo zatiz eta modu ezeztazinean erabiltzeagatik edo horiek azkentzeagatik eskualdatzen badira, esku hartzen duten notarioek, beraiek eskuetsitako agirietan, ohartarazi behar dute ezen ondasun eta eskubide horiek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren kuotak, eskualdaketa baino lehen sortutakoak, ordaintzeari lotuta geratzen direla, ordaintzeko obligazioa preskribatzen ez den bitartean.

Era berean, Jabetzako edo Merkataritzako erregistratzaileek orri bazterreko ohar baten bidez adierazi behar dute ondasunak eta eskubideak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren kuotak, eskualdaketa baino lehen sortutakoak, ordaintzeari lotuta geratzen direla, ordaintzeko obligazioa preskribatzen ez den bitartean.

Laugarrena. Atxikipena egin beharra.

1. Testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua erabili gabe duten herentziak behartuta daude atxikipenak, konturako sarrerak eta ordainketa zatikatuak egitera, eta dagokien zenbatekoa Arabako Foru Aldundiari ordaintzera, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauan, Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauan, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauan eta horiek geratzen dituzten arauzko xedapenetan ezarritako kasu eta moduetan.

2. Nolanahi ere, atxikipenak, konturako sarrerak eta ordainketa zatikatuak behartuta dauden aldetik, testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua erabili gabe duten herentziek beren gain hartuko dute diru sarrera Arabako Foru Aldundiari egiteko obligazioa, eta beste obligazio hori ez betetzeak ez ditu salbuetsiko diru sarrera egiteko betebeharrak honetatik.”

IV. KAPITULUA

ONDAREAREN GAINEKO ZERGA

4. artikulua. Ondarearen gaineko Zerga aldatzea

Martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauan, Ondarearen gaineko Zergari buruzkoan, aldaketa hauek egin dira:

Bat. 2. artikuluari 3. idatz zatia gehitu zaio; hona:

“Hiru. Era berean, Foru Arau hau aplikagarri izango zaio testamendu ahalorde bat edo gozamen ahaldua bat erabiltzeke duten herentzien ondare garbiari, betiere Foru Arau honek bere bosgarren xedapen gehigarrian jasotako berezitasunei jarraikiz”

Bi. Honela geratzen da 7. artikulua:

“7. artikulua. Zergadunak

Bat. Foru arau honetako 2. artikuluko lehenengo idatz zatian zehaztu da nortzuk diren zerga honen zergadunak.

Bi. Era berean, zerga honen zergadunak izango dira Foru Arau honen bosgarren xedapen gehigarriak aipatutako testamendu ahalorde edo gozamen ahaldua bat erabili gabe dauden herentziak.”

Hiru. 9. artikulua gaur egungo edukia lehenengo idatz zatian sartzen da eta 9. artikulua horretan bigarren idatz zatia gehitzen da; hona:

“Bi. Testamentu ahalordea erabiltzeko dauden herentzietan gozamen eskubidea egonez gero, gozamendunari aurreko idatz zatiko arauak aplikatuko zaizkio

Arau horiek gozamendun ahaldunari ere aplikatuko zaizkio gozamen ahalduna erabiltzeko dauden herentzietan.

Jabetza soilaren balioari dagokionez, edo inolako gozamendunik ez dagoenean, testamentu ahalordea edo gozamen ahalduna erabili gabe duten herentziak zergapetuko dira Foru Arau honek bere bosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

Ezkontza osteko erkidegoa, Euskal Zuzenbide Zibilaren ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 140. artikuluan aurreikusten dena, testamentu ahalordea baliatzearen zain dagoenean, ezkontide alargunak —edo izatezko bikotekideak, Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikotea denean— berari dagokion erdiarengatik tributatu du. Beste erdiari dagokionez, idatz zati honetako aurreko paragrafoetan ezarritako araei jarraituz tributatu du.”

Lau. Honela geratzen da 35. artikulua:

“35. artikulua. Ondare erantzukizuna

Zerga honen ordainketan sortzen diren zorren eta zehapenen izaera Kode Zibileko 1.365. artikuluan aipatzen direnena izango da. Beraz, irabazizko ondasunen bitartez edo irabazitako ondasunen bidez (arabide ekonomikoa foru komunikazioa bada) kitatuko dira ezkontideetarikoko edozeinek Foru Ogasunarekin kontzeptu hori dela-eta dituen zorrak eta, hala badagokio, ezartzen zaizkion zehapenak.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa aplikagarri ere izango zaie Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikoteei, betiere aurreko paragrafoak aipatzen dituen kasu berberetan.”

Bost. Beste xedapen gehigarri bat txertatu da, bosgarrena; hona:

“Bosgarrena. Testamentu ahalordea edo gozamen ahalduna erabili gabe duten herentzien zerga araubidea.

Lehenengoa. Ondarearen gaineko Zergari dagozkion xedapen zehatzak.

1. Xedapen gehigarri honek, Foru Arau honen artikuluetan ezarritako berezitasunekin batera, arautzen du testamendu ahalordea edo gozamen ahalduna erabili gabe dauden herentzien zerga araubidea, Ondarearen gaineko Zergan.

Herentziaren kausatzaileak, heriotzaren unean, Araban izan badu ohiko bizilekua, Arabako Foru Aldundiari dagokio aipatutako zerga ordainaraztea aurreko paragrafoan jasotako xedapenak aplikatuta.

2. Foru Arau honen manuak aplikagarri izango zaizkio testamendu ahalorde bat edo gozamen ahaldun bat (Foru Arau honek bere 9. artikulua bigarren idatz zatian aipatutakoa) erabiltzeke duten herentzien ondare garbiari, betiere xedapen honen hurrengo idatz zatietan jasotako berezitasunei jarraikiz.

3. Testamentu ahalordea edo gozamen ahalduna erabili gabe duen herentziak zerga ordaintzeko betebeharra du, eta haren betebeharra da, era berean, Foru Arau honetan ezartzen diren gainerako betebeharrak betetzea.

4. Betebehar pertsonalagatik zergadun direnen kasuan, zerga honen kuota osoaren eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kuota osoaren batura ezin da izan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga oinarri orokorraren eta aurrezpenaren zerga oinarriaren ehuneko 65 baino gehiago. Ondore horietarako:

a) Ondarearen gaineko Zergaren kuota osoaren zati bat ez da kontuan hartuko, hain zuzen ere izaera edo destinoa dela eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauak kargatzen dituen etekinak sortu ezin dituzten ondare elementuei dagokien zenbatekoa.

b) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga oinarriari batu behar zaio Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauko bosgarren xedapen gehigarriko 1. zenbakian aipatzen den dibidenduen eta mozkinetako partaidetzen zenbatekoa.

c) Bi kuota horien batura goian ezarritako gehieneko zenbatekoa baino gehiago bada, Ondarearen gaineko Zergaren kuota murriztuko da ezarritako mugara ekarri arte (murrizketa ezin da izan ehuneko 75 baino handiagoa).

Idatz zati honetan ezarritako kalkulua egiteko, testamendu ahalordea edo gozamen ahalduna erabili gabe duen herentziari dagokion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren oinarriari gehitu beharko zaio jabetza soilaren eta gozamenaren ondasunetako etekinen zenbatekoa:

a) Kausatzaileak edo komisarioak ezkontideari, izatezko bikotekideari (maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako bikotea), aurreko bati, ondorengo bati edo bigarren graduako albo ahaide bati (ahaidetasunaren jatorria hauetako bat izan daiteke: odolkidetasuna, ezkontza, izatezko bikotearen eraketa edo adopzioa) eratziki badio, edo Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauko 42. artikulua arabera lotuta dagoen pertsona edo erakunde bati.

b) Kausatzaileak hirugarren bati eskualdatu badio zerga sortu aurretiko bost urteko epean.

Kasu batean zein bestean, aurkakorik frogatu ezean, ondasun horien gozamenari dagokion urteko etekina hau dela ulertuko da: ondasunon jabetza osoa dela-eta konputatu beharreko balioaren %5, Foru Arau honen 12-26. artikuluetan xedatzen denaren arabera.

Halaber, testamendu ahalordea edo gozamen ahalduna erabili gabe duen herentziaren ondarean konputatuko dira kausatzaileak kosturik gabe eskualdatutako ondasunak, betiere zerga sortu aurretiko bost urteetan, baldin eta egiaztatzen ez bada dohaintza hartzaileak horien balio parekidea duen zenbateko baten truke tributatzen duela Ondarearen gaineko Zergan. Arau hau ez zaie aplikatuko irabazteko asmorik gabeko elkarteen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauko 18. artikuluan aipatzen diren erakundeen esku kostu gabe jarritako ondasunei.

Bigarrena. Ondarearen gaineko Zergari eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari begirako xedapen erkideak.

1. Testamentu ahalordea edo gozamen ahalduna baliatzearen zain dauden herentziaren betebeharrak formal eta materialak, herentziaren administratzaileak edo gozamendun ahaldunak bete beharko ditu, hurrenez hurren.

2. Testamentu ahalordea erabili gabe duen herentziaren administratzailea eta gozamen ahalduna erabili gabe duen herentziaren gozamendun ahalduna erantzule subsidiarioa izango da Ondarearen gaineko Zergaren eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ordainketari dagokionez.

3. Testamentu ahalordea edo gozamen ahalduna erabili gabe duen herentziako ondasun eta eskubideek Ondarearen gaineko Zergan eta Pertsona Fisikoen gaineko Errentaren Zergan tributatu dute, haien edukitzailea zeinahi dela ere, salbu eta edukitzaile hori erregistroko fede publikoak babestutako hirugarren bat bada, edo, ezin inskriba daitezkeen ondasun higigarrien kasuan, onustez eta titulu zuzenarekin justifikatzen bada ondasun eta eskubideok merkataritzako edo industriako establezimendu batean eskuratu direla.

Horretarako, aurreko paragrafoan aipatutako ondasun eta eskubideen eskualdaketan, ondasun eta eskubide horiek testamentu ahalordea edo gozamen ahalduna osorik edo zatiz eta modu ezeztazinean erabiltzeagatik edo horiek azkentzeagatik eskualdatzen badira, esku hartzen

duten notarioek, berek eskuetsitako agirietan, ohartarazi behar dute ezen ondasun eta eskubide horiek Ondarearen gaineko Zergaren eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kuotak, eskualdaketa baino lehen sortutakoak, ordaintzeari lotuta geratzen direla, ordaintzeko obligazioa preskribatzen ez den bitartean.

Era berean, Jabetzako edo Merkataritzako erregistratzaileek orri bazterreko ohar baten bidez adierazi behar dute ondasunak eta eskubideak Ondarearen gaineko Zergaren eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kuotak, eskualdaketa baino lehen sortutakoak, ordaintzeari lotuta geratzen direla, ordaintzeko obligazioa preskribatzen ez den bitartean.”

V. KAPITULUA

ONDARE ESKUALDAKETEN ETA EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUEN GAINEKO ZERGA

5. artikulua. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga aldatzea

Aldaketa batzuk egin dira martxoaren 31ko 11/2003 Foru Arauan, Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzkoan; hona:

Bat. 8. artikuluko b) letra honela geratu da:

“B) Aitortutako adjudikazio gaindikinak, salbu Foru Arau honek bere 24. artikulua 3 eta 4. idatz zatietan ezarritako kasuak betetzeko sortzen direnak, eta bereziki ekainaren 25eko 5/2015 Legean, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoan, araututa dagoen baserriaren eta haren jabegoaren doako eskualdaketatik sortzen direnak.”

Bi. 24. artikuluko 3. idatz zatia honela geratzen da:

“3. Kode zibileko bigarren paragrafoko 821, 829 eta 1056 eta lehenengo paragrafoko 1062. artikuluetako eta oinarri horretan bertan oinarritutako Euskal Zuzenbide Zibileko xedapenak betez gertatzen diren esleipenen soberakinak.”

Hiru. I. tituluaren III. kapituluaren 3. sekzioari beste artikulua bat gehitu zaio, 41 bis artikulua, hain zuzen. Hona hemen:

“41. bis artikulua. Foru saka eta lehentasunezko eskubidea

1. Euskal Zuzenbide Zibila aplikatuta, ahaide tronkalek, foru deiak egin, eta Aramaio eta Lau-dioko udal mugarteetan dauden ondasun tronkalek besterentzeetan ondasunak lehentasunez eskuratzeko eskubidea erabiltzen dutenean, peritu tasazioaren bidez zehaztutakoa hartuko da eskuraketa baliotzat, halako tasaziorik egin bada.

2. Ondasun tronkalak besterendu baino lehen foru deirik egin ez, eta, horren ondorioz, saka eskubidea erabiltzeko, senide tronkaletako batek besterentzea deuseztatzeko akzioa egikaritzen badu, senide tronkalak ordaindu behar duen prezioa zehazteko peritu tasazioa egingo dute berariaz izendatutako pertsonak, eta tasazio horren bidez ezarritakoa hartuko da eskualdaketa baliotzat, Euskal Zuzenbide Zibila aplikatuz.

Kasu horretan, ordaindutako zergaren itzulketa eskatzeko eskubidea izango du erosleak, Foru Arau honen 83. artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

3. Aurreko idatz zatietan ezarritakoari kalterik egin gabe, arau bidez ezarritako gutxieneko balioa zehazteko arau teknikoek jasotako aplikagarri zaien ondasun tronkalek eskualdaketei dagokienez, aplikatu ahalko da Foru Arau honek bere 71. artikuluan balioak egiaztatzeko arautako prozedura.”

Lau. 43. artikuluko 1. idatz zatiko b) letra aldatu da eta honela geratu da:

“b) Aurreko letran xedatuta dagoena gorabehera, etxebizitzaren eskualdaketek, orokorrean, garaje plazen eskualdaketak barne direla (gehienez bi eta beraien eranskinak, eraikin berekoak eta denak batera eskualdatzen direnean), % 4ko karga tasa jasango dute. Honetatik salbu daude

ondoko letran azaldutakoak. Letra honetan jasotako ondoreetarako, negozio lokalak ez dira hartuko etxebizitza eranskintzat, nahiz eta harekin batera eskualdatu.

Halaber, ez dira etxebizitzat hartuko hirigintzako sustapen bati ekin aurretik erauzteko diren etxebizitzak.”

Bost. Hona 69. artikulua 1. idatz zatiko B) letraren 2. zenbakiaren edukia:

“2. Legezko atzera egiteen ondorioz egiaztatzen diren eskualdatzeak, baldin hark aurkatutako eskuratzailak jada zerga ordaindu badu. Ez daude salbuespen honen eremuan sartuta ekainaren 25eko 5/2015 Legeak, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzkoak, bere 83. artikuluan araututako foru saka eskubidea baliatzearen ondoriozko eskualdaketak. Kasu horretan, Foru Arau honen 41 bis artikuluan ezarritakoaren arabera ordainduko dute zerga.”

Sei. Hona 69. artikulua 1. idatz zatiko B) letraren 9. zenbakiaren edukia:

“9. Lur zatien baterakuntzak eragiten dituen eskualdaketak eta gainerako egintza eta kontratuak, landa lurreko finken derrigorrezko trukaketenak, behar bezala baimendutako borondatezko trukaketak eta berrogei urtetik gorako errentamenduetan lehentasunez eskuratzeko eskubidea baliatzearen ondorio direnak (Euskal Zuzenbide Zibilean daude araututa), baldin eta onibarra eskuratu eta hurrengo sei urtean eskualdatzen ez bada.

Lehengo Foru Arauko 5. artikuluan arautzen diren salbuespenak aplikatzea hartan zehaztutako eragiketen eskritura publikoa gauzatzeko beharrari lotzen zaio.”

Zazpi. 69. artikuluko lehenengo idatz zatiko B) letrari 48. zenbakia erantsi zaio; hona:

“48. Baserriaren eta haren jabegoen jabari osoaren edo bizi arteko gozamenaren kostu bidezko eskualdaketak ahaide tronkalen alde, baldin eta finka nekazaritza edo abeltzaintza ustiapen baterako erabiltzen bada eta eskualdatzailak modu pertsonalean aurrera eramaten badu.

Salbuespena aplikatuko bada, eskuratzailak aurreko paragrafoan zehaztutako jarduerak eraman beharko ditu aurrera modu eraginkorrean, zuzenean, pertsonalean eta lehentasunez, betiere baserria eta haren jabegoak eskuratu eta hurrengo sei urteetan.

Pertsona bat batez ere nekazaritza, basozaintza edo abeltzaintzako ustiapenean ari dela ulertuko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondoreetarako ekonomi jardueren edo lan pertsonalaren etekin gehienak zeregin horreketan eskuratzen dituenen.”

VI. KAPITULUA

TOKI OGASUNAK

6. artikulua. Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Araua aldatzea

Toki ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 13. artikulua aldatzen da; hona hemen:

“13. artikulua. Erantzukizuna gozamen ahalduen edo testamendu ahalorde bidez gauzatzen diren herentzietan

Testamentu ahalordearen edo gozamen ahalduaren bidez gauzatzen diren herentzietan, administratzailea edo gozamendun ahalduak, hurrenez hurren, erantzule subsidiarioa izango da testamentu ahalordea edo gozamen ahalduak erabili gabe duen herentziaren zerga zorrei dagokienez”

7. artikulua. Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga aldatzea

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauko 5. artikuluko 1. idatz zatia aldatu da eta honela geratu da:

“1. Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, pertsona fisiko eta juridikoak, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak, Arabako Zergari buruzkoak, bere 35. artikulua 3. idatz zatian aipatzen dituen entitateak, eta testamentu ahalordea edo gozamen ahalduak erabili gabe duten herentziak, baldin eta zerga honen zerga egitate eratzten duten eskubideen titular badira.”

8. artikulua. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga aldatzea

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 43/1989 Foru Arauaren 6. artikulua aldatzen da; hona hemen:

“6. artikulua

Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, pertsona fisiko eta juridikoak, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak, Arabako Zergei buruzkoak, bere 35. artikulua 3. idatz zatian aipatzen dituen entitateak, eta testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua erabili gabe duten herentziak, baldin eta zerga honen zerga egitatea sortzen duten jarduerak Arabako Lurralde Historikoan egiten badira.”

Testamendu ahalordea edo gozamen ahaldua erabili gabe duten herentziei dagokienez, ulertuko da jarduera ekonomikoa egiten direla, betiere alde batera utzita azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoak, bere 24. artikulua 1. idatz zatian ezarritako betebeharraren ez betetzea.”

9. artikulua. Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga aldatzea

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 44/1989 Foru Arauko 3. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

“3. artikulua

Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, pertsona fisiko eta juridikoak, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak, Arabako Zergei buruzkoak, bere 35. artikulua 3. idatz zatian aipatzen dituen entitateak, baldin eta ibilgailua haien izenean agertzen bada zirkulazio baimean, bai eta testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua erabili gabe duten herentziak ere, baldin eta Foru Arau honen 1. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badira.”

10. artikulua. Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga aldatzea

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 45/1989 Foru Arauko 2. artikuluko 1. idatz zatia aldatu da eta honela geratu da:

“1. Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, pertsona fisiko eta juridikoak, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak, Arabako Zergei buruzkoak, bere 35. artikulua 3. idatz zatian aipatzen dituen entitateak, eta testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua erabili gabe duten herentziak, baldin eta eraikuntza, instalazio edo obraren jabeak badira, nahiz eta hori egiten ari den higiezinaren jabeak izan edo izan ez.

Aurreko paragrafoaren ondoretarako, eraikuntza, instalazio edo obraren jabea da haren gastuak edo kostuak jasaten dituena.”

11. artikulua. Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga aldatzea

Honako aldaketa hauek egin dira uztailaren 19ko 46/1989 Foru Arauan, Hiri Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzkoan:

Bat. Hona hemen nola idatzita geratu diren 3. artikulua 1. eta 2. paragrafoak:

“1. Zerga honen subjektu pasiboa, zergadun bezala, honako hau da:

a) Lurren eskualdaketetan edo jabariko doako gozamen mugatzaileen eskubide errealean osaketan edo eskualdaketan, pertsona fisikoa, juridikoa eta urriaren 28ko 6/2005 Foru Arauak, Arabako Zergei buruzkoak, bere 35. artikulua 3. idatz zatian aipatzen dituen entitateak, eta testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua erabili gabe duten herentziak, baldin eta lurra eskuratu eta eskubide erreala haren alde osatzen edo eskualdatzen bada.

b) Lurren eskualdaketetan edo jabariko kostu bidezko gozamen mugatzaileen eskubide errealean osaketan edo eskualdaketan, pertsona fisikoa, juridikoa eta otsailaren 28ko 6/2005

Foru Arauak, Arabako Zergei buruzkoak, bere 35. Artikuluaren 3. Idatz zatian aipatzen dituen entitateak, eta testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua erabili gabe duten herentziak, baldin eta lurra eskuratu eta eskubide erreala haren alde osatzen edo eskualdatzen bada.

2. Aurreko idatz zatiko b) letrak aipatzen dituen kasuetan, honakoak hartuko dira zergadunaren subjektu pasibotzat: pertsona fisikoa, juridikoa eta otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak, Arabako Zergei buruzkoak, bere 35. Artikuluaren 3. Idatz zatian aipatzen dituen entitateak, eta testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua erabili gabe duten herentziak, baldin eta lurra eskuratu eta eskubide erreala haren alde osatzen edo eskualdatzen bada, zergaduna Espainian bizi ez den pertsona fisikoa denean.

Bi. Hona hemen nola idatzita geratu diren 6. Artikuluaren 4. Eta 5. Paragrafoak:

“4. Egintza edo kontratuek baldintzaren bat dutenean, Kode Zibileko preskripzioen arabera kalifikatuko dira. Etendurazkoa balitz, zerga ez litzateke likidatuko harik eta berau bete arte. Baldintza deuseztapenezkoa balitz, zerga, bidezko itzulketa orduantxe exijituko litzateke, baldintza betetzean, aurreko ataleko arauarekin bat.

Testamendu ahalorde edo gozamen ahalduaren bidez gauzatzen diren herentzietan, zerga sortuko da ahalordea edo gozamen ahaldua modu ezeztazinean erabiltzen denean edo hura azkentzen duen arrazoiatariko bat izaten denean.

4. Baldin eta gozamen ahalduetan edo testamentu ahalordeetan pertsona jakin bati eman bazaio herentziako ondasunez bizi artean gozatzeko eskubidea, gozamen horren likidazio bakarra egingo da, gozamendunak kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera, eta bi-ziarteko gozamenei buruzko arauak aplikatuta.

Baldin eta gozamen ahalduetan edo testamentu ahalordeetan gozamena azkentzen bada gozamen ahaldu edo testamendu ahalorde hori erabiltzen denean, gozamen horren bi likidazio egingo dira, gozamendunak kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera:

a) Lehenengo likidazioa, kausatzailea hiltzen denean, bi-ziarteko gozamenari buruzko arauak aplikatuta.

Testamentu ahalordea erabiltzeko epea zehaztuta badago, ordea, lehenengo likidazio hori aldi baterako gozamenaren arauarekin bat egingo da, ahalorde hori erabiltzeko ezarritako dagoen gehieneko epearen arabera.

b) Beste likidazio bat, gozamen ahaldua edo testamentu ahalordea erabiltzen denean, aldi baterako gozamenaren arauarekin bat, kausatzailearen heriotzatik igarotako denboraren arabera. Aurreko likidazioagatik ordaindu dena konturako sarreratzat joko da, eta diferentzia gozamendunari itzuliko zaio, haren aldekoa bada. Aurreko b) letran aipatzen den likidazio hori eta gozamen ahaldua edo testamentu ahalordea erabiltzeagatik edo berau iraungitzeko gainerako kariengatik jaraunse direnen likidazioa aldi berean egingo dira”

Hiru. 6. artikuluari 6. idatz zatia gehitzen zaio; hona:

“6. Xedapen egintzen ondorioz, testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua noiz baliatu zain dauden herentziei dagozkien lurren eskualdaketei, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legean xedatutakoaren arabera, baldin eta eskualdaketa horrek ez badakar Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapenik, Foru Arau honetan ezarritako xedapen orokorrak aplikatuko zaizkie, honako berezitasun hauekin:

a) Aurreko idatz zatian aipatzen diren eskualdaketei dagokienez, zergaren subjektu pasibotzat joko da testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua noiz erabili zain dagoen herentzia, eta zergaren sortzapena eskualdaketa unean gertatuko da.

b) Zergaren tributu kuota zehazteko, likidazio bat egingo da kausatzaileak lurra eskuratu zuenetik igaro den denboraren arabera sortzapenarekin, eskualdaketa unean gertatuko dena, eta gozamendunak likidazioan ordaindutakoa konturako sarreratzat hartuko da, hori guztia Foru Arau honen 6. artikuluko 5. idatz zatian xedatutakoaren arabera.

Testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua noiz baliatu zain dagoen herentziak esku-ratutako lurren eskualdaketak egiten direnean, xedapen egintzen ondorioz, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 43. artikuluan xedatutakoaren arabera, likidazio bat egingo da kausatzaileak lurra eskuratu zuenetik igaro den denboraren arabera sortzapenarekin.

c) Testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua modu ezeztazinean erabiltzen baldin bada edo hori azkentzeko arrazoiren bat gertatzen baldin bada, eta, ondorioz, testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua noiz erabiliko zain dagoen jaraunspenak eskuratutako lurren eskualdaketa gauzatzen denean, xedapen egintzen ondorioz, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legeak xedatutakoaren arabera, likidazio bakarra igorriko zaio gozamen-dunari, biziarteko edo aldi baterako gozamenari buruzko arauen pean, testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua noiz erabiliko zain dagoen jaraunspenak lurra eskuratu zuenetik igaro den denboraren ondorioz gozamenak daukan izaeraren arabera. Likidazioa eta testamendu ahalordea edo gozamen ahaldua erabiltzeagatik edo berau iraungitzeko gainerako kariengatik jaraunse direnen likidazioa aldi berean egingo dira.

d) Zerga honen ondoreetarako, honako xedapen hauek izango dira aplikagarri: azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoak, bere hogeita hamargarren xedapen gehigarriaren hirugarren idatz zatian jasotako xedapenak, hain zuzen.

VII. KAPITULUA

SOZietateen GAINeko ZERGA

12. artikulua. Sozietateen gaineko Zerga aldatzea

Abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauari, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoari, hogeita laugarren xedapen iragankorra gehitu zaio; hona:

“Hogeita laugarrena. Ondare sozietateen araubidea.

Foru Arau honen 14. artikuluko 1. idatz zatiko b) letran aurreikusitako baldintza betetzeko, ez diote ondare sozietatea izateari utziko testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua noiz baliatu zain dauden herentzietan partaidetza duten erakundeek, baldin eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauak bere hogeita hamargarren xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikagarri bazaie.”

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

Foru Arau honen II. kapituluan likidazioei egiten zaizkien aipamenak autolikidazioaren kontzeptuari ere egiten zaizkiola ulertu beharra dago, baldin eta zergadunak Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari lotutako egitatearen aitortpena egin behar badu edo zerga hori autolikidatzeko betebeharra bete behar badu.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

Bat. Foru agindu hau indarrean jarritakoan indargabetuta geratuko dira bertan ezarritakoaren kontra dauden maila bereko eta beheragoko mailako xedapen guztiak.

Bi. Foru Arau hau indarrean sartzen denetik, edukirik gabe geratzen da honako xedapen hau: Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren Foru Araua eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Foru Araua aldarazten dituen azaroaren 27ko 32/2013 Foru Arauaren xedapen iragankor bakarra, hain zuzen.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena. Indarrean sartzea.

Foru arau hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Bigarrena. Gaikuntza.

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko irailaren 20a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA